

Ivo Andritxen Zubi bat Drinaren gainean eta zeharbidezko itzulpena*

KARLOS ZABALA

Sarrera

Ni itzultzailea naiz, itzultzaile *freelance*. Hitz hori nik ere ez nuen oso gustuko, orain dela gutxi arte. Jakin nuen arte *freelance* lehen aldiz Walter Scott idazleak erabili zuela eta non, eta *Ivanhoe* eleberrian. Orduan, hitzari erreparatu eta, hara, *free lance*, lantza librea, zaldun askea... Gure lanbide hau gordin samarra da jeneralean, eta orain arazorik gabe erabiltzen dut, halako ukitu erromantiko batez gordintasun hori leundu nahian. Gainera, azken boladan itzulpen-teoria nagusietako bat “scopo”arena da: itzulpenaren helburua omen da inportanteena. Helburua bezeroak markatzen du, eta guk, “zaldun libreok” fidelitasuna, beraz, harekiko izango dugu, *freelance*, azken finean, badakigulako zer den: eufemismo bat besterik ez, “mertzenario” esateko.

Nik gehienbat literatura itzuli dut, azken 12 urtean. Eleberriak. Eta gehienak eleberri luze samarrak. Orduan eta orduak lan honetan. Liburu bat bukatu eta beste bati ekin. Eta sekula ez egokierarik —eta, egokiera izanik ere, ia ziur gogorik ez— itzulpengintzaz orokorrean hausnarketan hasteko.

Eta Iñigo Roquek ikastaro honetan parte hartzeko egin zidan proposamena aprobetxaturik, bada, azken boladan, tarteka, lana alde batera utzi eta gauzak irakurtzeari ekin nion; irakurri-takoei buruan buelta batzuk eman, nire aurreko ideia zirriborrotsuekin alderatu... halaxe ibili naiz. Aukera ona zen gogoeta txiki batzuk egiteko.

* “Literatura Unibertsala itzultzen” ikastaroan irakurri zuen egileak hitzaldi hau, 2012ko ekainaren 26an, UEUren Eibarko egoitzan.

Arantzazu Royok lagundu du testu hau argitaratzeko prestatzen.

Nik nire esperientzia kontatzen ahal dut, zergatik itzuli ditudan itzuli ditudan liburuak eta ez beste batzuk, zer oztopo aurkitu ditudan, zer irtenbide baliatu ditudan... eta beharbada hobe nuke horretara mugatuko banintz. Baina, zerbait gehixeago ekarri nahi nuen, eta, bide batez, neure burua pixka bat ordenatu. Ideiak oso desbideratuta badaude, txarrenean ere, ezta baida pizteko balio dezakete, eta tira.

Ez naiz iritsi, noski, deus ere sistematizatzeraz. Ideia-zerrenda moduko bat egin dut, behar-tuz gero, beharbada defendatuko nituzkeen pentsamendu, iritziz, kezka eta irudipenekin. Eta hitzaldia ideia horiekin, bataren eta bestearen pasadizo batzuekin, nik egindako ikerketatxo batzuekin, eta nire eskarmentutik ateratako kontuekin osatuko dut.

Nolabaiteko ordena jartzeko, hala-holako *zoom in* bat egitea pentsatu dut. Google Earth-ek egiten duen bezala. Ilargiraino joan, handik mundua ikusi eta etxeko teilaturantz abiatuko naiz bidaiari.

Erlatibotasunaz

Ilargian egonda, lehenengo ideia bota behar, eta nik, bada, erlatibotasunaren alde egingo dut. Pere Quart poeta katalanaren hitzetan esango dut (Gerardo Markuletak euskaratuta ditu Pere Quarten hainbat poema, *Zerbait poeta katalan. Antologia* liburuan).

Pere Quartek idatzi zuen: «Bizitza honetan dena da erlatiboa, gutxi gorabeherakoa eta behin-behinekoa». Eta batzuek, horri gutxi iritzita, «aldi baterakoa» ere gehitzen diote esaldiari.

Nik ez dakit bizitzan den-dena erlatiboa den, baina ideia hori funtsezkoa iruditzen zait itzulpengintzaz aritzen garenean. Ez itzulpengintzaz aritzen garenean bakarrik. Giza jakintza-aren hainbat eta hainbat arlotan enpirikoki frogatua dago hori horrela dela. Baina maiz ahaztu egiten zaigu. Eta batzuetan, gainera, gehien oroituko beharko genukeenean ahazten zaigu, hau da, teorizatzen-eta hasten garenean.

Bizitzan den-dena erlatiboa, gutxi gorabeherakoa eta behin-behinekoa bada, hizkuntza eta literatura ere dira erlatiboak, gutxi gorabeherakoak eta behin-behinekoak. Eta baita hizkuntzak eta literaturak osatzen dituzten elementu guzti-guztiak ere. Neurri desberdinetan, noski, baina halakoak dira fonetika eta morfosintaxia, lexiko guztia, bai eta ipuin, poema eta eleberriz guztiak ere. Ezin da fonema bat bi aldiz modu bereberean ahoskatu, naturan bi hosto berdin-berdinak aurkitu ezin ditugun bezala.

Bi aldiz gauza bera esaten ari garela uste dugunean ere, ezinezkoa zaigu benetan gauza bera esatea. Jorge Luis Borges-ek ipuin hartan bezala. Ezagutuko duzue, gehienek behintzat: *Pierre Menard, Kixotearen egile*. Juan Garziak euskaratu zuen *Ipuin hautatuak* liburuan.

Pierre Menard idazle frantses bat da, XX. mendekoa, sinbolista, eta Kixotea idatzi nahi du, Kixotea sortu nahi du, eta Cervantesena bezalakoak izatea nahi du. Eta idatzi ditu bi kapitulu eta beste baten zati bat. Eta berdin-berdinak dira Menardek idatzitako kapituluak eta Cervantesek idatzitakoak. Baina, Borges-ek ipuinean, Menarden obraren iruzkingileak bi testuak alderatu eta zera botatzen du: «Menarden Kixote zatikakoa Cervantesena baino sutilagoa da». Eta gehi-

tzen du aurrerago: «Cervantesen testua eta Menardena berdin-berdinak dira hitzei dagokienez, baina bigarrena ia infinituki aberatsagoa da. (Anbiguoagoa, esango dute haren arbuiatzaileek; anbiguitatea, ordea, aberastasuna da)». Eta arrazoi du. Ez da Borgesen kontu hori, ziur aski, «arrazoi bai/arrazoi ez» parametroetan epaitzekoa. Baina egia da. Testu berbera idatzita ere, ez da testu berbera. Testuingurua aldatu da, erreferentziak aldatu dira, pentsamoldeak aldatu dira, irakurleak aldatu dira. Muturreraino eramanda, esan daiteke ezinezkoa dela testu bat bi aldiz modu berebean irakurtzea, ezta norberak ere.

Eta, bide horretatik aldendu gabe, eta ideia horri tiraka, galdetu dezakegu ea zer gertatzen den jatorrizko liburuekin, jatorrizko testuekin. Zer da “testu bat jatorrizkoa”?

Eta Borgesek berak ematen digu erantzun bat: «“Behin betiko testua”: kontzeptu hori edo erlijioari dagokio edo nekeari», eta, itzulpen alorrera salto eginda eta torlojuia koska bat gehiago estutuz, zera dio: «Itzulpena jatorrizko testuaren fase bat da, fase aurreratuago bat»¹.

Sarrionaindia aipatu daiteke, eta bere liburu baten izenburua, aski esanguratsua: *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*.

Eta honelaxe dio Octavio Pazek ildo berean: «Testu bakoitza bakarra da eta, aldi berean, beste testu baten itzulpena da. Ez dago testurik guztiz originala denik, hizkuntza bera ere, funtsean, itzulpena delako».

Testu guztiak, ikuspuntu horretatik, beste batzuen zordun dira. Eta itxita eta finkatuta dau dela uste badugu, formaz hala agertzen zaizkigulako da. Arestian esan bezala, ezinezkoa baita bi aldiz modu berebean interpretatzea, irakurtzea.

Eta testu originala, gainbehera honen ondotik, amildegiaren hondo-hondora bultzatzeko, Raffaele Simone aipatuko dut. Liburu txiki bat du: *La tercera fase. Formas de saber que estamos perdiendo*. Liburuaren barne-titulu bat da: “Testu itxiaren ideia ez da antzinakoa”. Eta dio Europako kulturak ia mila urte eman duela ideia hori eratzen: testua entitate itxia dela eta babestu beharra dagoela kanpoko esku-hartzeetatik. Eta, aurrerago, zera botatzen du: «Eskrituraren teknologia berriak aldaketak eragingo ditu guztien kontzientzian, eta beharbada, lehenago edo geroago, inor ere ez da oroituko testu itxi eta babestuz». Testu librea, beraz, akaso, etorkizunean, software librea bezala.

Ni ideia horiekin bat nator, beste batzuekin baino gehiago, behinik behin. Baina horrela nabarmentzeko motiboa beste bat ere bazen. Bi motibo, hobeto esanda. Batetik, iruditzen zait jatorrizkotik egiten ez diren itzulpenei horrelako ikuspegi zabal batetik begiratu behar diegula. Erlatibotasun hori ez genuke bistatik galdu behar, ez zaigu ahaztu behar, zeharbidezko itzulpenez ari garelarik. Eta, bestetik, aipamen horiek guztiak kontraerasoa baino ez dira, jende askoren iritzi erasokorraren aurka, «jende askorentzat testu originalak paregabeak» baitira, «zuzendu beharrik ez dutenak inondik inora, eta itzultzaileok, berriz, erremediorik gabeko txapuzeroak, erdipurdikeria eta gezurra besterik sortzen ez dakigunak», Borgesen hitzetan esanda, berriz ere.

1. WAISMAN, Sergio: *Borges y la traducción*, Adriana Hidalgo editora, Buenos Aires, 2005 (itzultzailea, Marcelo Cohen).

Zeharbidezko itzulpena

Sarrera beharbada luzeegi horren ondoren, sartuko naiz bete-betean zeharbidezko itzulpenen kontu honetan.

Nola deitu ere ez dakigu garbi. Zeharkako itzulpena, *traducción indirecta*, deitzen zaio maiz, baina nahasgarria da, itzulpen-teoriaren barruan Vinay-Darbelnetek erabili zutelako “hitzez hitzekoa” ez dena izendatzeko. Bigarren eskukoa ere deitu izan zaio, eta kate bidezkoa, “sekundarioa”, bitarteko hizkuntza baten bidezkoa, zubi-hizkuntzaren bidezkoa, *relay translation* (errelebozkoa edo)... Nik “zeharbidezkoa” aukeratu dut hitzaldi honi izenburua jartzean, us-tez, behintzat, ez delako beste ezerekin nahasten. Hala edo hola deitu, zer den garbi dago: originaletik zuzenean egiten ez diren itzulpenak. A hizkuntzatik B hizkuntzara pasatzeko, zubi bat erabiltzen da: C hizkuntza.

Eta, beraz, C hizkuntza horri zubi-hizkuntza dei dakiok, eta hizkuntza horretako testuei, zubi-testuak. Hau da, sorburu-testu batetik zubi-testu baten bidez iristen da xede-testura.

Zeharbidezko itzulpengintzari buruz ez da askorik idatzi orain arte. Baina azken boladan gero eta artikulu gehiago agertzen ari dira aldizkari espezializatuetan. Oso sakabanatuta daude, baina badira mordoska bat. Libururik, nik dakidala, oraingoz behinik behin ez dago gai honen inguruan.

Artikulu horietako bat aipatuko dut bakarrik². Oso ondo argitzen du, nik uste, gai honen nondik norakoa. Punturik garrantzizkoenak aipatzen ditu paragrafo bakar batean.

Zoritza Mantsitx izeneko itultzaile batek idatzia da. Zoritza Mantsitx Belgradeko Unibertsitateko irakasle bat da; suediera eta itzulpen-teoria erakusten ditu, eta, besteak beste, Stieg Larssonen *Millennium*-en hiru liburuak itzuli ditu serbierara, beste bi itultzaileekin elkarlanean.

Artikuluaren lehenengo paragrafoa irakurriko dut:

«Zeharbidezko itzulpena (itzulpen baten itzulpena) halako tabu bat da itzulpengintzaren teorian zein praktikan, nahiz eta kasu askotan “hizkuntza txikiak” eta “literatura txikiak” deitutakoen sorkuntzazko obra ia guztiak ezin diren beste hizkuntzetako irakurleen eskueran jarri, horrela ez bada. Itzulpenaren itzulpena balio gutxiagokoa bezala ikusia izan da beti, jatorrizkotik egindako itzulpenaren kopia zurbil bat bezala. Hala ere, batetik, badaude zeharbidezko itzulpenak oso handiak (Vinaverovihek itzulitako Andersen en maitagarrien ipuinak, esaterako) eta, bestetik, zeharbidezko itzulpen batean egiten diren okerrak zuzeneko edozein itzulpenetan egin daitezke, inondik ere.»

Tabua aipatu du, eta egia da, horrelako itzulpenak ia literatuta guztietan ugari samarrak izanda ere, oso presentzia eskasa izan dutela itzulpenari buruzko liburutetan. Itzulpen-ikasketetan

2. MANČIĆ, Zorica: “O nekim odstupanjima u posrednom prevodu: Hezelova legija prokletih (De fordømtes legion) u posrednom prevodu na srpski jezik”, in *Mostovi*, 146, Sveska II (2009), 117-125 (izenburua euskarara itzulita: “Desadostasun batzuk zeharbidezko itzulpen batean: Sven Hassel-en *Kondenatuen legioa (De fordømtes legion)* serbierara zeharbidez itzulia”).

arretarik ez zaio jarri, publikoan jeneralean iritzi negatiboa du, mesfidantza sortzen dute. Aurreiritzi guztiz negatiboak daude praktika horri buruz.

Eta, aipatzen direnean, hitzak ez dira oso goxoak izaten:

- Kopiaren kopiak zehaztasuna eta xehetasunak galtzen ditu urrats bakoitzean.
- Itzultzailek arretatsuenak ere ezin saihets ditzake zubi-testuan dauden desbideraketak eta egokitasun falta estilistikoak.
- Isla baten isla besterik ez da.
- Saihestu beharreko gaixotasuna da.
- Prozedura hori tamalgarria da guztiz. Hutsaren hurrengoa da arte-lan bezala.
- Praktika hori salagarria da. [Oraingoz ez dago zigor-kodean tipifikatuta, baina erne ibili!]
- Zeharbidezko itzulpenaren irudia estigmatizatuta dago, eta ez da harritzekoa, bigarren ezabatze-gradu bat baita, definizioz sekundarioa den jarduera batean.
- Irakurle espezializatuen artean, behintzat, zeharbidezko itzulpen literarioek leku deserosoa hartzen dute, edo, hobeto esanda, ez dira gozagarriak; onartezinak dira sinpleki, eta azken-azken baliabide gisa baino ez dira onartzen, eta, horrelakoetan, beti halako beldur batez, halako arrenkura batez, beharrezko gaitz bat bezala, beste modurik ez dagoenean original batera iristeko.
- [Ehunekoetan kuantifikatzen saiatu denik ere bada:] Zeharbidezko itzulpenetan okerrak egiteko probabilitatea % 25ekoa da.

Tabuarena, beraz, ez da harritzekoa, horrelako iritziak bazterretan badaude. Zertarako hasiko gara horrelako itzulpenak aztertzen, itzulpen-izena merezi duenik ere zalantzan jartzen bada. Alferreko lana litzateke.

Orain oroitu behar genuke original/itzulpen bikoteari buruzko erlatibotasuna. Iritzi horiek guztiak ukendu horretaz igurtzi beharko genituzte pixka bat, ezta?

Hizkuntza txikietan, maiz, zeharbidez

Zoritza Mantsitxen pasarte horretan, tabuarena aipatu ondoren, beste ideia bat azaltzen du: hizkuntza txikiak ez dutela beste biderik kanpoko irakurleengana iristeko.

Zeharbidezko itzulpenak egiteko motibo bat baino gehiago dago. Argitalpen-gastuak murriztea izan daiteke bat. Iraganean beste bat izan zitekeen sorburu testua eskuratzeko zailtasuna. Hori gaur egun, Internetekin-eta, gainditua dugu. Eta bestelakoak ere izan daitezke. Bada, dauden guztietan defendatzen errazena eta kontra egiteko zailena, inondik ere, hau da: literatura txikiak edo zubi horretatik pasatzen dira, edo nekez iritsiko dira beren lurraldetik urrun. Gu hemen “Literatura Unibertsala” bildumako liburuez ari gara, eta, horregatik, bestelako norabideari erreparatu behar diogu. Kanpotik gureru zer ekarri eta nola ekarri. Eta norabide

horretan badago tartea eztabaidatzeko. Liburu gutxi euskaratu ditzakegu. Aukeratu ditzagun gehienbat jatorrizkotik egin ditzakegunak. Tira. Badakigu horrela hainbat eta hainbat hizkuntzatakako obrak ezin izango ditugula itzuli. Baina itzultzen ditugunak, ustez, behintzat, ziurtasun handiagoz itzuliko ditugu. Eta hori euskararako mesede da... Ez dago gaizki esana. Defenda daiteke bestelako iritziren bat ere... baina ez dago gaizki esana.

Baina, beste norabideari erreparatuz gero, ez dago zalantzarik. Inork ere ez du zalantza ñimiñorik ere plazaratu, nik uste, gai horren inguruan. Euskal literaturako obrak beste hizkuntzatarata itzuli beharra dago. Eta kasu horretan berdin zaigu, eta berdin izan behar zaigu bigarren eskuko itzulpenak diren, hirugarren eskukoak edo laugarrenekoak. Munduko literatura-fluxuetan agertu beharra dugu, eta ez bakarrik kanpokoek hemen gaudela jakin dezaten. Behar-beharrezkoa dugu barrura begira ere. Eta horretan beste guztiak bezalakoak gara. Literatura guztiak behar dute kanpora agertu. Osasungarria da, ikusmena zolitzen digu, antiseptikoa eta antioxidantea da, barruko arazoak orekatzen laguntzen digu, ederrago egiten gaitu. Azenarioak jatea bezala. Denetarako onuragarria. Horrelaxe da. Eta, itzulpen-teorietan, bai eta praktikaz ari garela ere, maiz itzulpen-galeraz hitz egiten dugu, eta ez dugu esaten itzulpen-galera hori beti erlatiboa dela, ez dela absolutua, itzulpenak ez baitakarkio inolako kalterik beste hizkuntza batera pasatu den liburu edo idazleari. Inolakorik ez. Itzulpenik kaxkarrena ere itzultitako liburuarentzat gauza handia da, kanpora begira, eta barrura begira. Kaxkarraren kaxkarrez irakurri ezin denean ere, idazlea eta originala salbatzen dira, eta, norbait zigortu behar bada delitu horrengatik, denok dakigu zeinen bizkarra jipoituko duten.

Hizkuntza guztietan eta garai guztietan egin da

Zalantzak zalantza, eta kritikak kritika, zeharbidezko itzulpena hizkuntza guztietan eta garai guztietan egin da, eta zabalkunde kulturalaren zati garrantzizkoa bete du lurralde askotan. Adibideen soka amaiezina litzateke. *1001 gau* liburua Antoine Gallandek frantsesera egindako itzulpenetik zabaldu zen mendebaldeko literatura guztietara. XIX. mendeko idazle errusiarrak, Tolstoi, Dostoievski, Pushkin, Turgenev, Chejov gaztelaniara, portugesea eta beste hainbat hizkuntzatarata, frantsesaren bidez iritsi ziren. Mendebaldeko literatura koreerara japonieraren bidez. Albania, Hungaria, Polonia eta Errusiako liburu asko frantsesezko bertsioetatik itzuli dira ingelesera. Murakami alemanera, ingelesetik. Sandor Marai ingelesera, alemanetik. Sven Hassel idazle daniarra 20 bat hizkuntzatan irakur daiteke, eta bertsio gehienak ingelesetik eginak daude (lehenago aipatu dudan artikuluan Zoritz Mantsitxek ingelesetik serbierara egindako itzulpena aztertzen du). Atxagaren liburuak gaztelaniatik egiten dira. Orhan Pamukena, ingelesetik.

Gauza bitxiak ere gertatu izan dira joan-etorri horietan. Frantsesa izan da Europako literatura-trukaketetan bitarteko hizkuntza gisa gehien erabili izan dena, baina Alemanian XVIII. mendean ingelesa erabiltzen hasi ziren: ingelesa antidotoa zen, uztarri frantsesetik askatzeko. Edo Shakespeareren obrak: bitara itzultzen ziren: zuzenean, eliteko irakurleentzat; eta, fran-

tsesaren bidez eta oso aldatuta, antzerkirako eta irakurleko orokorrarentzat (infidel ederren arrastoan). Edo liburu batzuek nolako bidaiak egin dituzten: Andersen ipuinak txinerara iristeko, danieratik abiatu, alemanetik pasa, ingelesetik pasa, japonierara iritsi, eta japonieratik txinerara. Brasilen, gaur egun, Tolstoi, Dostoievski, Gogol, Goethe, Kafka berriz itzultzen ari dira, orain zuzenean, aurreko itzulpenak zeharbidezkoak zirelako. Baina, horrekin batera, Nagib Mahfuz, Orhan Pamuk, Stieg Larsson zubi-hizkuntzen bidez argitaratzen ari dira.

Beste alde batetik, arreta erakartzen du ikusteak hainbat alorretan zeharbidezko itzulpenak arazorik gabe egiten direla eta, are gehiago, bultzatu ere egiten direla, bestelako arazoan irtenbidea izan daitezkeelako. Esperantoa da kasu nabarmena, besteak beste, zubi lan hori egiteko sortu baitzen, eta horrela erabili izan da, Txekiako literatura japonierara itzultzeko, esate baterako.

Eta Europako Batasuneko erakundeak ere beste adibide esanguratsua dira. Une honetan 23 hizkuntza dira ofizialak, eta kroaziera eta turkiera ate joka daude. Denak dira ofizialak eta denak dira lan-hizkuntzak, baina praktikan frantsesa eta ingelesa, batez ere, zubi-hizkuntza gisa erabiltzen dira maiz. Aldi bereko itzulpenean ere erabiltzen da aspalditik. Eta ondo funtzionatzen du. Ondorio hori atera daiteke, behinik behin, kazetari batek kontatzen zuen pasadizo batetik.

Oso interesgarria iruditu zitzaion txiste batek Europako Parlamentuko kideen artean nolako eztanda-uhina zabaldu zuen. Aspaldiko kontua da, Parlamentuan sei herrialde bakarrik zeuden garaikoa. Kontatzen du behin parlamentari frantses batek txantxaren bat egin zuela, eta, entzun orduko barrez hasi dira frantses guztiak eta belgikar batzuk; gainerakoak erne, esperoan; handik pixka batera, barreari eman diote britainiarrek, holandarrek, italiarrek eta falta ziren belgikarrek, eta, handik beste piska batera, elkartu zaizkie daniarrak. Daniarrak Europako Batasunean —ez, Batasunean ez, garai hartan Europako Komunitatea zen, bai baina orain ez da komunitatea, Europako erkidegoa baizik—, beno, kontua da daniarrak Europako zera horretan sartu berriak zirela, eta ez zuten interpreterik frantsesetik zuzenean itzultzeko, eta ingelesetik itzuli arte zain egon behar izan zuten. Hala ere, inportanteena da txistearen denek ulertu zutela, antza.

Gurean ere egin izan dira eta egiten dira zeharbidezko itzulpenak literaturan. Baina askorik ez. Eta jeneralean guregandik urruti samar gelditzen diren hizkuntzetatik itzultzeko. Horrelako batzuk: Imre Kertész hungariarraren *Zoririk ez*, Urtzi Urrutikoetxeak egina, alemanezko, ingelesezko eta frantsesezko itzulpenak erabiliz eta Karoly Morvay irakasle euskaltzalearen laguntzaz; Nagib Mahfuz egiptoarraren *Mirarien kalezuloa*, Patxi Zubizarretak egina (frantsesa, gaztelania eta ingelesa erabili zituen); Adam Bodor hungariarraren *Artzapezpikuaren bisita*, Unai Elorriagak egina, gaztelaniatik, eta Karoly Morvayk orraztua, hau ere. Eta beste hainbat. Aurrerago beste bat aipatuko dut xehekiago.

Nola egin daitezkeen horrelako itzulpenak

Ez dago modu bakar bat, jakina. Hizkuntza bakar batetik egin daiteke, jatorrizkoa hura balitz bezala, beste ezeri ere jaramonik egin gabe. Bi hizkuntza erabili daitezke, konparatzeko. Bi baino gehiago ere bai.

Lana bi lagunek egin dezakete lankidetzan. Toledoko itzultzaile-eskola deitutakoan bezala. Batek arabieratik erromantzerara pasatzen zuen testua, ahoz, eta beste batek erromantzetik latinera. Gure artean horrelako liburu bat behinik behin badago: Li Bai poeta txinatarren *Urrutira bidalia* izenburukoa, Albert Galvany sinologoak eta Pello Otxoteko poetak itzulia.

Aholkulari linguistiko batek lagundu dezake, arestian aipatu dudan Karoly Morvayk bezala. Eta goraiatu beharrekoa da, horri dagokionez, Jokin Zaitegi itzulpen-beka, Nobel saridunak euskaratzeko AEDk eta Elkarrek antolatzen dutena, beka irabazten duenak jatorrizko hizkuntza ez badaki, aholkulari bat jartzen zaiolako. Horrela itzuli zuen Urtzi Urrutikoetxeak *Zoririk ez* liburua, eta horrela itzultzen ari da orain Juan Mari Agirreurreta, Tomas Tranströmer-en poesia.

Eta beste modu bat ere ba omen dago: bihotzetik itzultzea. Horren harira, Milan Kunderak kontatzen du nola bere lehenengo eleberria, *Žert* izenekoa (*La broma*, gaztelaniaz, *La Plaisanterie*, frantsesez), hizkuntza pila batera itzuli zen, eta bakoitzak bere ñabardurak erantsi zizkion.

Frantzian, itzultzaileak berriatzi zuen eleberria, Kunderaren estiloa apainduz, noski —infidel ederrak—. Ingalaterran, berrosatu zuten, gogoetazko pasarteak moztu zituzten, kapitulu musikologikoak kendu, parte ordena aldatu... Eta, beste leku batean, eta ez du esaten non —«Europa-aldeko herri kokor batean, bere izenik ez nuke gogoratu nahi», Berrondoren itzulpenaren hitzekin esanda—, esaten ez duen leku horretan, itzultzaileak ez zekien txekieraz, eta Kunderak galdetu zion ea nola moldatu zen. Eta itzultzaileak erantzun zion: “bihotzarekin”, eta Kunderaren argazkia atera zuen karteratik eta erakutsi egin zion. Eta Kunderak dio itzultzaile hura oso atsegina zela eta sinesteko zorian egon zela bihotz-telepatia halako batez benetan itzuli zitekeela.

Modu batean edo bestean egin, badirudi batzuetan badagoela halako joera bat, erabiltzen den testuari estu jarraitzeko. Halaxe aipatzen dute irakurri dudan artikuluko pare batean, behinik behin. Artikulu horietan itzulpen zehatzen bat aztertzen zuten, eta, aztertu eta gero, ondorio horretara iristen ziren; eta azpimarratzen zuten lehen hurbilketan kontrako pentsatzea normalagoa izan zitekeela beharbada: sorburu-testutik ari ez garenez, joka dezagun libre. Bada, batzuetan behinik behin, irudi du itzultzaileak alderantzizkoa pentsatzen duela: sorburu-testutik ari ez naizenez, ahal den gehiena atxiki nakion esku artean dudan euskarriari. Joera hori orokorragoa den edo ez esateko, askoz ere itzulpen gehiago aztertu beharko lirateke. Baina nire kasuan ere halaxe izan zen.

Serbokroaziera, serbiera, kroaziera, bosniera...

Eta hasiko naiz hurbiltzen pixkanaka Ivo Andrićen *Zubi bat Drinaren gainean* liburu-rantz.

Euskarara serbokroazieratik, zeharbidez bada ere, hiru liburu besterik ez daude, nik dakidala. Serbokroaziera esan dut, baina, egia esateko, gaur egun Kroazian, Bosnian edo Serbian inork ere ez omen dio horrela deitzen. *Zubi bat Drinaren gainean* gehiago saltzeko esperantzaz, ziur



aski, liburu hori hango egoera ulertzeko oso baliagarria dela esan dute behin baino gehiagotan. Eta halaxe izango da beharbada. Baina hango hizkuntzekin zer gertatzen den ikusteak ere, interesgarria izateaz gain, hango egoeraren kafkatartasuna ulertzeko lagundu dezake.

Lehen Zoritza Mantsitx irakasle eta itzultzailea aipatu dut, eta haren artikulua baten hasiera irakurri dut. Eta esan dut Stieg Larssonen *Millenium* itzuli zuela.



Kroazian, Bosnian eta Serbian denek ulertzen dute elkar zailtasun handirik gabe. Baina herriak banandu direnez gero, bakoitzak bere hizkuntza du, eta, ahal den neurrian, besteetatik bereizten saiatu dira: Serbian alfabeto zirilikoa bultzatzen dute, Kroazian neologismoak asmatzen dituzte, Bosnian turkierazko hitzak erabiltzen dituzte (Bosnia musulmanean esan beharko genuke, Bosnia gerraren ondoren bitan zatituta gelditu baitzen). Oso-oso simple esplikatuta.

Baina kontua da tema horri tinko eta gogor eusten diotela, eta hizkuntzak desberdinak badira, itzulpenek ere desberdinak izan behar dute. Eta *Millenium*en itzulpena adibide aparta da. Hiru hizkuntza, hiru argitaletxe, hiru itzultzaile, hiru itzulpen, hiru edizio. Eta hona hemen itzulpen horien azalak.


Serbiera. Itzultzaileak: Zorica Mančić, Danijela Babić, Dorijan Hajdu.



Bosniera. Itzultzailea: Izet Muratspahić





Kroaziera. Itzultzailea: Željka Černok






Eta orain bertsioak alderatuz, izenburuei errezago erreparatzeko.

(Hirugarren liburua izenburua ezberdina da, baina ez esateko modua aldatzen delako, izenburu ezberdina jarri ziozteleko baizik:

- Serbia: Karta-gaztelua.
- Kroaziera: Airezko gazteluak.
- Bosnia: Sunsitutako airezko gazteluak)





Hori dela eta, beste anekdota bat kontatuko dut. Zagreben gertatu omen zen, Kroazia-ko hiriburuan, 1991-95eko gerren ondoren serbiar zinegile baten film bat lehen aldiz jarri zutenean hango zinema-aretoetan (*Rane*, Srdjan Dragojevitx, 1998). Serbiera eta kroaziera ezberdinak zirenez, filma azpтитulatu beharra zegoela erabaki zuten. Aurrekaririk gabeko gertaera kulturala izan omen zen, historian lehen aldiz azpтитulatzan baitzen serbiar film bat kroazieraz. Hasi da filma eta pertsonaia batek dio: “vežite se, polećemo” (lotu uhalak, laster aireratuko gara), eta azpтитuluak itzuli: “vežite se, polećemo”. Gero, zera agertu omen da pantailan idatzita: “Beograd, Srbija. Jesen 1996” (Belgrad, Serbia. Udazkena, 1996), eta azpian kroazierazko itzulpena: “Beograd, Srbija. Jesen 1996”. Filmak istorio gogorra kontatzen du, baina ikusleek algaraka barre egin omen zuten lehenengo minunuetan, *behar-beharrezko* azpтитulu haiek zirela eta.

Euskaraz, hiru liburu

Berria egunkarian, joan den urtean, apirilean, Kroaziako idazle bati egindako elkarrizketa bat argitaratu zuten. Dubravka Ugrexitx izena du. Eta elkarrizketako lehen galdera ez zion kazetariak idazleari egin, idazleak kazetariari baizik. Eta galdetu zion ea Jugoslavia ohiko zer idazle zeuden euskarara itzuliak. Eta kazetariak, Aritz Galarragak, Danilo Kiš eta Ivo Andrić aipatu zituen. Onenak omen direla esan zion idazleak. Bide onetik goazela, baina, akaso, hirugarren bat falta zitzaigula. Eta Miroslav Krleža aipatu zion. Eta esan zion bere nobelarik maitena *Na rubu pameti* zela. Nik gustura baino gusturago irentsi nuen artikulu hura, Kiš aipatzen zelako, Andrić aipatzen zelako —hemendik aurrera bi idazle horietaz hitz egingo dut batez ere—, eta *Na rubu pameti* aipatzen zelako. Niretzat ere liburu hori zoragarria baita. Nik frantsesez irakurria nuen, *Je ne joue plus*, “Ez naiz jolasten”, haurrek dioten bezala —originala/itzulpena harreman gatazkatsu eta erlatibo horretan, nik, kasu honetan behinik behin, nahiago frantsesezko izenburua—. Gaztelaniaz, nik dakidala, ez dago.

berria.info | Papereko edizioa
Asteartea, 2012ko ekainak 26 - 01:32 Plaza

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak  

Harian | Irit

Berria.info » [Papereko Edizioa](#) » Plaza  

2011-04-24
LITERATURA. DUBRAVKA UGRESIC. IDAZLEA

«Mundu guztia hil aurreko orgia bizi dugu»

Kroaziako hiriburu Zagreben jaio zen, 1949an, eta serbokroazieraz idazten duten idazle garaikide nagusietako bat da Dubravka Ugresic. Eleberriak idatzi izan ditu, baina saiakera pare batek egin du ezagun azken urteotan.

ARITZ GALARRAGA

Eleberriak baditu, bai, eta ez makalak, *Ministarstvo boli* (Minaren ministerioa), *Baba Jaga je snijela jaje* (Baba Jagak arrautza errun du). Baina saiakera lanengatik da gurean ezagunago Ugresic: *Zabranjeno citanje* (Eskerrik asko ez irakurtzeagatik) eta *Nikog nema doma* (Ez dago inor etxean), esaterako, hark idatziak dira. Hitz egiten hasi, eta galdetu dit ea zer autore ezagutzen ditugun, euskaraz, Jugoslavia ohikoak. Bat-batean, Ivo Andrić, Danilo Kis ekarri dizkiot. Onenak omen, bide onetik goazela esan dit, hasteko ez dagoela gaizki. Hasteko, jakina. Irribarre egin du. Hirugarren bat falta zaigula, akaso, handietakoa, Miroslav Krleža, Ugresicen nobela maiteenaren idazlea, *Na rubu pamei* (Arrazoiaren ertzean).

Eta gauzak nola diren, handik urtebete baino lehen, *Berria*n berriz ere, harrিতuta ikusi nuen igandetan ateratzen diren liburuen kritiken ondoan txiki-txiki, “Adimenaren mugetan” liburua, Miroslav Krležarena, argitaratu zuela Erroteta argitaletxeak, Hasier Agirrek itzulita. Abenduaren 28a edo apirilaren 1a izatera, inoxentekeria zela pentsatuko nuen (inoxentekeria bitxi samarra, intelektualegia, egia esateko). Baina martxoak 25 zituen. Nola zitekeen, ordea? *Na rubu pamei* euskaraz argitaratu dute eta ez da inon agertu letra handiz Krležaren argazki batekin edo? Igandea zen, eta egun hartan bertan saiatu nintzen liburua Internet-en bilatzen. Ez zen ageri inongo web orritan, ezta Erroteta argitaletzekoan ere. Hurrengo goizean, Irunera, hango bi liburu-dendatan galdetzera. Berririk ez. Haiei ere ez zitzairen agertzen beren liburu-zerrendan.

Gaur goizean hitzaldia errepasatzen ari nintzela, nire korreoa sartu naiz, jakin-minez, eta ikusi dut astelehen hartan bertan, eguerdian, egin niola eskaera Errotetari. Eta segituan erantzun zidan Joseba Berriotxoak, berea baita argitaletxea, eguerdi hartan bertan, eta bidali zidan

liburua. Bide batez, Žarko Petanen *Iragana* ere eskatu nion, hori ere Hasier Agirrek itzulia. Žarko Petan ere Jugoslavia-ohikoa da, baina esloveniarrak, kasu honetan. Oso gomendagarria da haren *Diktadore alaia* liburua, Tito Jugoslaviako presidenteari buruzkoa.

Hara, Dubravka Ugrexitxen arabera Jugoslavia-ohian idazlerik onenak ziren hiruren liburu bana dugu euskaraz. Ez dago gaizki. Jarraipena eman behar.

Euskaraz, beste hiru liburu

Euskarara ezin dugu liburu kopuru handia itzuli, gure txikitetasunak beharturik. Baina pixkanaka-pixkanaka ondare koskorra eratzen ari gara, eta literatura unibertsalean gertatzen diren korronteez, loturez eta eraginez gero eta isla handiagoa dute gure hizkuntzan, itzulpenak agertu ahala.

Zidanje skadra (Shkodraren eraikuntza) izeneko elezaharra adibide ona da, inondik ere. Balkanetako elezakar horren arabera, eraikin handiek sakrifizio bat eskatzen dute, zutik iraungo badute. Haien paraten artean biktima bat sartu behar da eraikitzean, han hil dadin, dorrea, zubia edo hiribildua arimaz janzteko edo. Elezakar trajiko horren aldaerak Grezian, Errumanian, Bulgarian, Albanian eta Serbian aurkitu dituzte.

Eta, aldaera herrikoi horiez gain, istorio hori hiru bider gutxienez erabilia izan da literatura modernoan. Lehenbizi, Marguerite Yourcenarrek jaso zuen frantsesez, *Nouvelles orientales* narrazio liburuan, *Le lait de la mort* izenburuko ipuinean, 1938an. Gero, Ivo Andrićek aipatzen du *Na Drini ćuprija* eleberraren hasieran, serbokroazieraz, 1945ean. Eta Ismail Kadareren *Ura me tri harqe* liburuan ere azaltzen da, albanieraz, 1978an.

Eta euskaraz ditugu hiru liburuok. Kadarerena Juan Mari Arzallusek euskaratu zuen frantsesetik *Hiru arkuko zubia* izenburuarekin eta Elkar argitaletxeak plazaratu zuen 1994an. Yourcenarrena, *Ekialdeko kontakizunak*, Imanol Zurutuzak itzuli zuen, eta “Literatura Unibertsala” bilduman argitaratu zuen Ibaizabalek 1996an. Eta Ivo Andrićena 2010ean agertu zen, Alberdania eta Elkar argitaletxeen eskutik, eta “Literatura Unibertsala” sailean hau ere.

Bestalde, kantu eta ipuin zaharren adibidea ere aipa daiteke jatorrizko testuaren sakralizazioaz edo erlatibotasunaz hitz egiterakoan. Horrelakoetan ezinezkoa izaten baita jakitea zein den lehenengo testua, nork asmatu zuen eta zein hizkuntzatan idatzi zuen. Balkanez ari dela Ivo Andrićek dio hango gerretan lurrak eta ondasunak ez ezik, elezakarrek ere elkarri lapurtzen dizkiotela. Baina Balkanetan ez ezik, hori mundu guztian gertatzen da. Eta gerran ez ezik, baita bakean ere.

Zeharbidez itzultzeko aholku pare bat

Lehen esan dut, batetik, zeharbidezko itzulpen bat xehekiago aipatuko nuela, eta arestian esan dut Danilo Kišez arituko nintzela. Eta bi aipamen horiek liburu berari dagozkio. Modu berezian aipatu nahi dut, ni abiatu nintzen bide berean ibili zelako nire aurretik, eta, gainera,

itzulpena egin ondoren, artikulua bat idatzi zuelako aholkuak-eta emanez, atzetik zetozenentzat lagungarri. Haren itzulpena kontuan hartu nuen, nirea egiterakoan, eta haren artikulua kontuan hartu dut, hitzaldi hau prestatzerakoan. Misterio gehiagorik gabe. Liburua Danilo Kišen *Hildakoen Entziklopedia* da, “Literatura Unibertsala” bilduman argitaratua, eta Monika Etxebarriak euskaratuta. Nik dakidala *Hildakoen Entziklopedia* da serbokroazieratik euskarara itzultako lehen liburua. Eta, esan dudana bezala, liburuaz gain, Monika Etxebarriak artikulua bat idatzi zuen *Senex* aldizkarirako, “Itzulpen baten penak eta nekeak” izenekoak. Izenburuak gogorarazten digu itzultzaile literarioen lana, literatura bat nolabait janzteko lan hori, garai bateko lihoaren lana bezain luze, neketsu eta arretaz egin beharrekoa dela.

Artikulu horretan azaltzen du nola frantsesa eta gaztelania hautatu zituen itzulpena egiteko, jatorrizkoa jakin ezean, bi bertsioetatik egin behar baita itzulpena “Literatura Unibertsala” bildumarako, behinik behin. Eta esplikatzen du nola bi bertsioekin batera lan egiteak zenbaitetan itzultzailea “ataka gaiztoetan” jartzen duen. Eta nola, ataka horretatik ateratzeko, hirugarren bertsiora jo zuen, italierazkora. Kalbario hori sufritu ondoren, hainbat aholku ematen ditu, norbaitek antzeko gurutze-bide batean gora igotzeko asmoa hartzen badu, jakinaren gainean ibil dadin.

Aholkuak bi dira:

- lehenengoa, ahal dela, “informatzaile” bat izatea, aholkulari linguistiko bat, Karoly Morvay bat, alegia.
- eta bigarrena, bi hizkuntzak batera ez erabiltzea itzultzeko orduan. Aldez aurretik, lagin batzuen bitartez, bi bertsioetatik onena eta itzultzailearentzat erosoena zein den erabaki —eta hitzez hitz aipatzen ari naiz artikulua— eta lehenbiziko bertsioa egin, eta ondoren bigarrenaz baliatzea, horrela bi bertsioak bat ote datozen ziurtatzen baita.

Bi aholku, oso onak. Nik ez nion kasu egin ez batari ez besteari. Eta garbi aitortu behar dut, orain, norbaitek horrelako lan bat egiteko gogoia izanez gero, nik, bizkarreko lagunkoi eta adore-emaile batzuez gain, bi aholku horiek berak emango nizkiola. Eta, zer esanik ez, bi aholku horiei estu eta zorrotz jarraituko nieke, noizbait berriz halako lan bati ekingo banio. Ur hotzak errea.

Bertsio-saltsan igerian

Nik, halako batean, Ivo Andritxen *Zubi bat Drinaren gainean* liburua itzultzeari ekin nion. EIZIEk urtero “Literatura Unibertsala” euskaratzeko deitzen duen deialdian ikusi nuen liburu hori. Lagina prestatu, lagun bati pasa zuzendu ziezadan, aurkeztu nintzen, esleitu zidaten, eta lanera.

Nik, hasieran, Monika Etxebarriaren bide berbera egin nuen. Serbokroazierazko liburu bat aukeratu nuen, serbokroazieraz jakin gabe. Frantsesezko eta gaztelaniazko bertsioak hautatu nituen, itzulpena egiteko. Bi bertsio horien konparaketak “ataka gaiztoetan” jarri ninduen behin

baino gehiagotan, kontrajarriak zirelako eta bata bestea bezain ilun, Monika Etxebarriak bere artikuluan zioen bezala. Eta gainera orduan jakin nuen gaztelaniazkoa frantsesetik egina zegoela. Nik ere hirugarren bertsio batera jo nuen, eta nik ere italierazkoa hautatu nuen. Eta niri ere hainbatetan hirugarren bertsioak, atakako giltza eskaini beharrean, sarraila gehiago jartzen zizkidan bidean.

Eta zer egin nuen nik orduan? Bada, Ivanhoe nintzela sinistu. Atera nuen lantza eta, “atozte, atozte nire kontra turkoak eta kristauak. Ikusiko duzia! Makurraraziko diziet burua!”. Orain ikusita, badakit zer gertatu zitzaidan. Ez naiz lehenengoa izan zulo horretan erortzen, eta, zorritzarrez, ez naiz azkenekoa izango. Kixote izeneko bat ere, erraldoiak ikusi, eta haien aurka oldartu zen ausart lantza hartuta —pasarte hori gutxigatik ez zuen Pierre Menardek ere idatzi, bederatzigarren kapitulua idatzi baitzuen, eta ez zortzigarrena—.

Italierazkoarekin nahikoa ez zela ikusita, ingelesezkoa ere hautatu nuen. Esan behar dut batzuetan, eta ez gutxitan, bertsioetako bi edo hiru, eta baita laurak ere, tarteka, bat zetozela. Baina halako zurrunbilo batean sartzen zarenean, neuronak ere zorabiatu egiten dira, eta, askietsi beharrean, galegozkoa eta katalanezkoa ere aztertzen hasi nintzen. Aztertu ez, egia esateko. Burdina lanean probatzen den bezala, nik hizkuntza-aukera bakoitza probatzeko, kapitulu oso bat itzuli nuen. Eta, noski, hori eroso samar egiteko, kapitulu horiek eskaneatu, OCRtik pasatu eta zutabeetan jartzen nituen. Lehenengo kapitulua, gaztelaniatik eta frantsesetik itzuli nuen. Bigarrenean, bi horiek eta italiera erabili nituen. Hirugarrenean eta laugarrenean, ingelese gehitu nien. Bosgarrenean, italiera eta ingelesik gabe, baina galego eta katalarekin. Eta hortxe gelditu nintzen, ea sagarren batek buruan jo eta formula magikoren bat bururatzen zitzaidan kinka hartatik ateratzeko.

Egia esateko, nik beti egiten dut horrelako zerbait, itzulpen-lanen hasieretan. Liburuaren laurden bat itzultzen dut, batez beste, liburuari neurria hartzeko bereziki. Noski, egindako lan hori guztia aprobetxatu egiten dut gero. Momentu horretan, itzulpenaren laurdena-edo egindakoan, erabakitzen dut nolako euskara erabiliko dudan, zer estilo erabiliko dudan, zer egingo dudan leku eta pertsonen izenekin, kultura-hitzekin, azpiko oharririk bai edo ez. Horrelako erabakiak momentu horretan hartzen ditut, eta hortik aurrera, bukatu arte, ahal den neurrian hartutako erabaki horiei eusten diet, deus aldatu gabe, gero sorpresaren bat beti sortzen bada ere. Ahal den gehiena erabakita uzten dut, eta kontu horiei dagokienez erabakiak zintzo eta diziplinaz betetzen ditut. Hori egindakoan, hasierara bueltatzen naiz, eta hasieratik hasten naiz berriz itzultzen, amaiera arte.

Ikuspuntu horretatik, proba horiek denak egitea ez zen oraindik psikologoari bisita egiteko adinakoa. Horrela pentsatu nahi dut.

Baina kontua da handik aurrerako estrategia finkatzerakoan eta, batez ere, zein bertsio erabiliko nituen erabakitzerakoan —horixe baitzen erabaki guztietan inportanteena— otu zitzaidala egokia izan zitekeela jatorrizkoa ere erabiltzea, bertsioen ugaritasun horrek kontuak argitu beharrean iluntzen zituenerako. Nola? Zertarako dugu, bada, hortxe “Google itzuli” paregabe hori?

Bada, hizkuntzak hautatzeari ekin nion. Erabilitakoen artetik italiera eta ingelesa ziren gehien gustatzen zitzaizkidanak. Bat aukeratu beharko banu orain, italierazkoa aukeratuko nuke. Ingeleseztan, gainera, gauza handirik ez dakit. Lupa atera behar nuen, eta poliki-poliki irakurri, zerbaitez jabetuko banintzen.

Momentu horretan itzultzaileak ere aztertu nituen. Eta jakin nuen italierazkoak, Bruno Meriggik, Milango Unibertsitatean filologia eslaboa erakusten zuela eta, besteak beste, *Jugoslaviako literatura* izeneko liburu bat zuela. Italiera, beraz, barrura.

Orduan jakin nuen gaztelaniazko itzulpena frantsesetik bai, baina ez zela nik esku artean nuen bertsioetik itzulia, beste batetik itzuli zuela Luis del Castillo Aragonek, eta hori izan zela, gainera, Luis del Castillok itzultitako liburu bakarra.

Frantsesez, beraz, bi zeuden. Bestea ere eskuratu nuen. Georges Lucianik egin zen lehenengo, eta 1956an argitaratu zen. Luciani hori Bordeleko Unibertsitateko irakaslea zen eta hizkuntza, literatura eta zibilizazio eslaboa erakusten zuen. Andritx bera ezagutu zuen eta, itzulpena egitean, Andritxen beraren laguntza handia izan zuela idatzi zuen. Fidatzekoa zirudien. Baina, zorionez, nire ikerketa koskor horretan, Ivo Andritxek Gun Bergman itzultzaile suediarri bidalitako eskutitz bat aurkitu nuen, eta hartan zera zioen: «Itzultitako edozein obratan, halabeharrez, haren zehaztasunaren eta egiazkotasunaren % 10etik 15era galtzen da. Bertsio frantsesean, esaterako, oker asko daude. Errealitate hori kontuan hartu behar da eta harekin adostasuna lortu. Ezin da beste moduan izan.»

Tira, Luciani, kanpora. Eta Luis del Castillok horretan oinarrituta itzuli zuen berea... Baina gaztelaniazkoa ezin utzi kanpoan, beharrezkoa baita hiztegieta eta bilatzeko.

Beste itzultzaile frantsesa Pascale Delpech zen. Alemanian jaioa, linguistika eta antropologia ikasketak eginak. Serbiera-frantseseko interpretea, itzultzaile, Danilo Kišen bikotekidea eta haren obra gehiena frantsesera itzuli zuena, eta momentu hartan Belgradeko Zentro kultural frantseseko zuzendaria. Delpech barrura.

Ingelesezkoaren itzultzaile Lovett F. Edwards zen. 1902an jaio zen eta 1931n Jugoslaviara joan zen; han barrena ibili zen hainbat urtetan, eta liburu batzuk idatzi zituen: *Ibiltari bat Jugoslavian*, esate baterako. Jugoslaviako beste idazle askoren obrak itzuli zituen. Edwards, barrura.

Aukeratuak nituen bertsioak. Meriggi, italierazkoa; Delpech, frantsesezkoa, Edwards, ingelesezkoa; Luis del Castillo, gaztelaniazkoa; eta “Google itzuli”tik serbieratik gaztelaniara pasatutakoa.

Hasi nintzen testu guztiak eskaneatzen, OCRtik pasatzen; beno, denak ez, italierazko bertsioa eta jatorrizkoa Internetetik jaitsiak nituen. Jatorrizkoa “Google itzuli”tik pasatu nuen, eta hizkuntza guztiak txukun-txukun zutabetan jarri nituen, den-dena begien bistan izateko. Hau da fitxategi horrek hartu zuen itxura:

<p>milijene da je on odukeć pobegao sa teškim ali ne dobro nečinem psarima. <u>Zuba</u> je to nije imao dokazati i svaki je tu stvar samo upola veroval. <u>Ali niko</u> je nije potpuno odbijao. Dvaput se ženio, <u>ali</u> mu se nije dalo u deci. Poligije je samo oevga sina. Milana, i njema je ostavio sve što je imao, <u>javno i skrivito</u>. I Milan je imao sina jedinca. Peter. Injanje bi mu doteklo i preteklo da nije imao jedina, jednu jedinu, ali svenocu stras — kocka.</p>

argialetxeak, Luisa Fernanda Garrido eta Tihomir Pištelek originaletik zuzenean egina. Eta, nola etsi hari begiradatxo bat eman gabe?

Bukaera

Zubi bat Drinaren gainean euskaratzeko lanak bestelako zailtasunak ere izan zituen, noski. Zer egin hainbeste turkismorekin, esaterako. Baina hemen zeharbidez itzultzeak sortzen dituen arazoez hitz egitea zen asmoa. Arazo horiek testuak deskodetzeari dagozkio bete-betean, eta, beraz, deskodetze-lan hori egindakoan, itzulpen-lana ez da bereizten originaletik zuzenean itzultzen dugunean egin behar dugun lanetik, etengabeko hautapen-prozesu horretatik, Mario Wandruszkaren hitzak erabiliz esanda.

Wandruszkak itzulpengintza etengabeko hautapen-prozesu gisa definitu ondoren, zera zioen: «Lexikoa, gramatika eta estilistika hautatu behar dira, batzuetan super-ugaritasunean, eta, beste batzuetan, gabezia gorrian.»

«Super-ugaritasuna», horra. Wandruszak itzulpengintzaren beste alor batzuk zituen go-goan, hori esan zuenean. Baina hori da deskuidatuz gero zeharbidez itzultzean agertzen den arriskueta bat. Eta, zeharbidezko itzulpenek tratu hobea merezi dutela aldarrikatzearekin batera, arrisku hori handik edo hemendik saihesten laguntzea izan da nire hitzaldi honen xede nagusia. Birritan bai, baina ez dezagun hiru aldiz estropezu egin harri berean.

Un ejemplo de traducción indirecta: *Na Drini ćuprija*, de Ivo Andrić

El origen de este artículo es una conferencia sobre la traducción indirecta, tomando como línea de salida el proceso de traducir al euskera la obra de Ivo Andrić. La traducción mediante lenguas puente no suele gozar de excesiva fama, ni ser objeto de investigaciones académicas. Sin embargo, sin ella sería imposible entender los flujos literarios en el mundo, puesto que, por ejemplo, las grandes novelas rusas decimonónicas llegaron a otras lenguas y culturas mediante las traducciones al francés. Por otro lado, muchas lenguas y culturas no disponen de otro medio para llegar al resto del mundo. El autor recoge diversos aspectos técnicos, problemas y remedios para ellos, en un recorrido por el proceso de traducción indirecta de *Na Drini ćuprija*.

Un exemple de traduction indirecte : *Na Drini ćuprija* (*Le pont sur la Drina*) d'Ivo Andrić

Cet article a été écrit suite à une conférence sur la traduction indirecte prononcée à propos du processus de traduction en euskara du livre d'Ivo Andrić, intitulé *Le pont sur la Drina*. Les traductions où l'on a recours à des de langues pont ne sont pas généralement très appréciées et elles ne font pas l'objet d'études académiques. Ce genre de traduction indirecte s'avère, toutefois, indispensable pour comprendre l'abondance d'échanges dans la production littéraire mondiale. C'est ainsi, par exemple, que les grands romans russes du XIX^e siècle sont parvenus à maintes langues et cultures grâce à leur version française. L'auteur présente ici les divers aspects techniques et les difficultés qu'il a dû surmonter lors de la traduction de ce roman en euskara, où il a précisément utilisé une langue pont.

An Example of Indirect Translation: *The Bridge on the Drina* by Ivo Andrić

This article is a discourse on indirect translation, taking as a point of departure the process of translating into Basque the work of Ivo Andrić. Translation done through a so-called bridge language does not enjoy high status, nor does it attract academic research. Nevertheless, without it, it would be impossible to understand worldwide literary ebbs and flows; for example, the great 19th-century Russian novels were translated into other languages and cultures through their translation into French. Furthermore, many languages and cultures have no other available means of transmission to the rest of the world. The author of this article discusses various technical issues, problems, and solutions in this tour of the process of indirect translation of *Na Drini ćuprija* [*The Bridge on the Drina*].